

APARTEKO OSOKO BILKURA

2015.12.14

Tolosako Udaletxean, 2015eko abenduaren 14an, iluntzeko 8etan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Ezohizko Osoko bilkura egiteko. Mahaiburu, Olatz Peon Ormazabal, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 20:00 horas del día 14 de diciembre de de 2015, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión Extraordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia de la Alcaldesa, Olatz Peon Ormazabal, y la asistencia de los miembros que se expresan, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Jokin Azkue Arrastoa
Nerea Letamendia Belloso
Patxi Amantegui Zubiria
Nuria Carbonell Miranda
Iñigo Alonso Sarasibar
Joseba Koldo Ormazabal Lopez
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga
Begoña Tolosa Mendia

Ibai Iriarte San Vicente
Lore Agirre Zipitria
Onintza Lasa Arteaga
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez
Igor Ezenarro Balda
Maria Lasa Arruabarrena
Pedro Manuel Etxabe Zabala
Jose Ignacio Asensio Bazterra

Idazkaria:
Jose Luis Unanue Ugalde

Behin behineko kontuhartzailea:
Paulino Alonso Eraso

Eguneko gaia zerrenda

1. Gaur egungo hondakin bilketa sistema hobetzeko aldaketa proposamena.

Orden del día

1. Propuesta de modificación para la mejora del sistema de recogida de residuos vigente.

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaia aztertzeko:

A continuación, se da inicio a la sesión por la presidencia, para analizar el siguiente punto:

1. Gaur egungo hondakin bilketa sistema hobetzeko aldaketa proposamena.

1. Propuesta de modificación para la mejora del sistema de recogida de residuos vigente.

Partehartzeak:

... Olatz Peon Ormazabal, alkatea: *“Hondakin bilketa, kale garbiketarekin batera, Udalaren zuzeneko eskumenak dira, garrantzizkoak. Ez bakarrik ekonomikoki, zuzenean herritarrengan eragin zuzena duelako. Horregatik, hondakin bilketa egoki bat erabakitzeaz gain, etengabeko jarraipena egitea ere beharrezkoa da.*

Hondakin bilketari dagokionez, urteetan plangintza ezberdinak egin dira, oso oinarrizko gauzetatik hasita, beti Europatik datozen arauak kontutan hartuz, sailkakoa (beira, papera, plastikoa eta azken urteotan organikoa) eta aipatu nahi nituzke San Blaseko zabortegia, itxiera, Mankomunitateko osaketa eskualdeko hondakin bilketa kudeatzeko, Garbigune berriak, ez Tolosakoa bakarrik, baita Andoaingoa ere. Beraz, urteetan zehar hainbat erabaki hartu dira sortzen ditugun hondakinaren kudeaketa egoki bat egiteko.

Ardura ez da, beraz, gaurkoa, aurreko urtetatik dator, azkenengo legealdian organikoa sailka jasotzeko hainbat erabaki hartu dira eta horrek zailtasun eta ardura batzuk sortu ditu: aipatzearren, ez garrantzizkoa delako, baina aipatu beharrekoa, ekonomikoa. Bestetik, herritarrak izan dituzten mugak hondakinak ateratzeko, eta hori, herritarren ohituretan izan dituen eraginagatik. Organiko eta errefuseko edukiontzia dituzten tamainengatik, kamioiaren kolpekin, alboko kargako kamioiak direnez, maiz puskatzen dira eta txipak bere funtzioa betetzeari utzi diote. Bestalde, jarraipenik egiteko aukerarik ez izana nahiz eta horretarako baliabide batzuk aurreikusit. Ez dute funtzionatu. Beraz, daturik ez dago, eta sistema aldiro ikuskatzea erabaki bazen ere, ez da egin. Hainbat puntu gaituztuta gaude eta egungo bilketa sistemak dituen hutsuneak kale garbiketa zerbitzuekin estaltzen dira. Gero eta denbora gehiago pasa, egoera okerragoa da. Beraz, efikazia eta efizientziaren baloreak ez dira bete. Gainera, kaleak, eguerditan, kartoiez beteta egoten dira, eskualde osoan Tolosan bakarrik gertatzen da, eta Merkataritzak duen garrantzia kontutan izanda, ez da egokia. Beraz, aldaketa egitea derrigorrezkoa jo dugu.”

... Patxi Amantegi Zubiria, Ingurumena, Auzoak Obra eta Zerbitzuak batzordeko lehendakariak(EAJ-PNV) aldaketaren nondik norakoak azaldu ditu: *“Zaborraren bilketa hiru modutara egiten da, atzeko karga, edukiontzi txikietaz; alboko kargaz, papera eta plastikoa eta, dendetan atez atekoa. Proposatzen dugun sistemarekin bilketa sinplifikatu egiten dugu eta horretarako egokitzapen batzuk egingo dira: gaur egun organikoa eta errefusa biltzeko edukiontzi txikiak erabiltzen ditugu, hauek albotik jasotzen dira. Errefuserako gaur egun erabiltzen diren biak, sanitarioak eta errefusa, batean jarriko genituzke. Aldaketa nabarmena, edukiontzi txikien partez handiak jarriko ditugu, edukiontziak neurriak handigoak izango dira, 240 litroko eduki ontzi txikietatik, 2.200 litroko edukiontzietara. Denak jasoko dira albotik. Ondorioz, bilketa-guneak ere murriztu egingo dira, 84tik 61-65 ingurura. Gainera, isla osoak izango dira, edukiontzi denak egongo dira, horrela herritarrak izango du aukera gaika bakoitzean aukera osoa. Biltzeko maiztasuna handitu egiten da. Dendetan dagoen atez ateko sistema ere, aldatu egingo da. Merkataritzak duen garrantziengatik aldatu egin da, sortzaile berezi hauek erabiliko dituzte beste herritarrak erabiltzen dituzten edukiontzi berdina, kartoi komertzialak izan ezik. Horretarako zenbait puntu egokituko dira, eta bilketa hau egunero, 19:00etatik 20:00etara, egingo da. Hori bai, kartoiak paperetik bereiziko da. Beste salbuespena, arrandegiak izango dira. Hauek atez ateko bilketa izango*

dute, bere edukiontzia jaso, hustu organikoa eta bueltatu egingo zaie. Beraiekin ordutegia adostu dugu eta beharraren arabera egokitzen joango gara.

Guzti honekin, garbiketa dexente hobetuko dugu, deposituak handitu, herritarrei erraztuz, eta suposatzen dugu kale garbiketan nabari izango dela. Azkeneko datu bezala, azpimarratu, gaur egun dugun bilketa eta guk proposatzen dugunaren arteko gastu murrizketa; 44 mila euro. Hauek, gaur egun ditugun baldintzetan, hau ere oraindik hobetu daiteke gainera”.

... Jose Ignacio Asensio Bazterra(PSE-EE): *“Bazen garaia aldatzeko! Egungo sistema ez baita egokia Tolosarako. Oso ondo adierazi zaigu oraintxe nolakoa den sistema. Nik gogoratu nahi nuke hauteskunde garaian aipatzen genuena, gure programan: “bosgarren edukiontzia sistema ezartzea EHBILDUren gobernuak ezarritako sistema ordezkatzeko; erabilera maiztasunari dagokionez, mugarik eta murrizketarik gabeko sistema ezartzea”. Eta hori, puntuz puntu, txosten tekniko honetan azaltzen da eta horregatik nere aldetik oso gustora baiezkoa emango diot proposamenari”. Jarraian, gazteleraz aurrekoa esan ondoren, gaineratu: “Simplemente decir que es un sistema mucho más cómodo que el anterior; que no tiene que ir en contra de ningún objetivo en el tema de residuos y, encima, si resulta más económico, mejor. Solo espero que desde la Mancomunidad no tengamos ningún tipo de cortapisa o limitación; solo espero eso. Esan den bezala, gaur egun daukaguna baino erosoagoa izango da, begi bistakoa da edukiontzi tamaina ez dela egokia Tolosarentzat; asteburuetan eta jai egunetan gertatzen dena ikusi besterik ez dago; zaborrak lurrean, edukiontzitik kanpo...Bazen garaia aldatzeko!. Nire aldetik baiezkoa emango diot proposamenari.”*

... Ibai Iriarte San Vicente, EHBILDUko zinegotzia Jose Ignacio Asensiori: *“Zuk bazela garaia esatea ez da harriztekoa; errauskailuaren sustatzailea izan denak zer esango du bada!. Guk uste dugu etorkizunean lotsa sentituko dugula gaur Udal honek hartuko duen erabakiarengatik. Lotsa diot, denbora pasata gauza perspektiba gehiagorekin ikusita atzera pauso itzela izango delako hartuko duzuen erabakia. Zuek hartuko duzuen erabakia diot, guk kontra bozkatuko baitugu. Argi dugu etorkizun orekatuago, jasangarriagoa, hobeagoa, garbiagoa nahi dugula. Eta zentzu horretan, gutako bakoitza arduradun dela, eta zer esanik ez, mahai honen bueltan gauden 17 zinegotziok. Esan duzue eta esango duzue, behin eta berriz, programan zenuela, eta horrek ez du kentzen, kanpainan jarri arren, atzera pausorik bat izango ez denik, kanpainako programan hartuta ere atzera pausoa berdina da. Gure ustez, berziklatzea ez da aukera bat, eginbehar bat baino. Gizarte gisa eta herritar moduan daukagun obligazio bat. Beraz, ez da norberaren askatasun printzipio bat, aukera bat. Hau ez da, norberaren askatasunaren printzipio horietan sartzen den aukera bat, guztion eginbehar bat da, gizarte baten kide garelako, gizarte izaten jarraitzeko bermearren erantzunkizun bat dugulako. Eta horretarako sistemak lagundu egin behar du hori egiten, oraindik ez garelako nahiko heldu askatasun osoz egiteko. Gaur egun aparkatzen dugunean, TAOko kontroladoreak daude, gehienetan batzuk ez dutelako ordaintzen. Eta kasu honetan, gakoa dago errefusaren edukiontzia sarbidea mugatzen. Librea denean batera botatzen da. Zuek planteatzen duzuen aldaketa ez da hobetzeko, erroko aldaketa bat baizik; azken finean gakoa den errefusaren kontrola deskontrol bilakatzen duzelako; errefusa astean 7 egun, egunean 24 orduetan irekita edukitzeaz, zuen ustez askatasunaren eta erotasunaren izenean, errotik aldatzen du gaur egun arte zegoena edo dagoena. Berziklatu ez duenari ez egiteko askatasuna edo eskubidea ematen diozue. Eta guretzat, ez berziklatzea ez da eskubidea. Eta, aldiz, ongi egingo duenak bere bizkarrean hartu beharko du gaizki egiten duenaren zama. Horrek, gure ustez, ez du horrela izan behar. Bestalde oinarritzeko printzipioa hausten duzue; gehiago kutsatzen duenak, gehiago ordaindu beharko du. Azken finean, ondo egiten duenak bere gain hartu beharko gaziki egiten duenaren zama guzti hori.*

Aurreko astean, Pariseko ittuna, Kiotoren ittuna, edo sinatu genuen alkatearen ittuna, CO2

isurketak txikitzeko konpromisoa, sinatu zen eta sinatuko dira. Sinatuta dauka Udal honek %20 CO2 isurketak txikitzeko. Itun guzti horiek beharrezkoak dira, mundua berotzen ari zaigulako, gure mundua akabatzen ari garelako, baina hitzarmen horiekin batera ekintzak egon behar dute, eta hau zen ekintza horietako bat. Erabaki zuzenak hartu behar dira, ez soilik mugatu erosotasunera, txukuntasunera edo hitzarmenak sinatzera. Gaurko ekintza hau horren kontra doa, epe ertainean errefusa gehiago sortzearekin batera CO2 isurketak handituko direlako. Beraz, alde batetik, hitzarmen ponpoxoak sinatzen ditugu eta ekintzak juxtu kontrakoak egiten ditugu. Ekintza hau horren kontra, etorkizunaren kontra, doa. Sortzen horrekiko erantzuleak gara, hondakinen kasuan, kudeaketa lineal batetik, hau da, produktuak sortu eta erabili eta erretzen amaitzetik, kudeaketa zirkular batera pausoa ematea pasa nahi izan zen iaz. Zirkularra, berrerabilpenean sinisten dugulako, eta hemen kontrakoa egin nahi da; lineala bilakatu nahi da berriro. Eta denaren gaintik erosotasuna jartzen duzuelako, axolagabekeria eta askatasuna parekatzen duzuelako, baina ez daude parean inondik inora. Helburu nagusia ezin da izan eroso izatea, helburua etorkizun orekatu, garbiago eta kontsekuente bat izatea baizik. Eta horretarako behar beharrezkoa da berziklatzea, gure kontsumo ohiturak bezala, eragin behar dugu berziklatze tasa horiek igotzea eta ardura, hemen, 17 zinegotziok inork baino gehiago ditugu, baina herritar bakoitzak ere, badu bere ardura. Eta hori etxean sailkatzetik hasten da. Harrituta gaude zuen inprobisazioarekin. Inposizioz hitzaz ez naiz hasiko, argi daukagulako pleno hau erabat legitimoa dela, hartzen dituen erabakiak hartzeko, horretarako egiten direlako hauteskundeak. Legitimoa da gaur hartuko den erabakia lehen hartutakoa izan zen bezala. Zuek erabiltzen dituzuen hitz gaizto eta maltzurak izan ziren. Argi daukat, pleno honek erabakitzen duela eta guztioi eman zaigula ardura erabakiak hartzeko, gaur eta lehenago. Baino argi daukat, aldi berean, hemen gaudenok, eta zu Olatz, alkatea zaren neurrian, daukazuna kudeatzea dagokizula, gustatu edo ez gustatu, eta hauteskundeetan alkatetza hartu eta sistema abandonatu egin duzue. Ez diozue jarraipenik egin eta horren isla da gero eta poltsa gehiago eta gero eta zikinago dagoen gure herria, gure Tolosa. Ez dakit, benetan, axolagabekeriak, nahita edo nahi gabe, eta ez dakit zer den grabeagoa, nahi gabe izanak erakusten du kudeaketarako gaitasun falta, nahita egitea maltzurkerik gogorrena. Beraz, sistemaren abandonuaren arduradunak zuek zarete. Noski, sistemak, txipak e.a. eta kudeatu egin behar dela, baina horretarako gaude eta dago Udal gobernu bat. Programan jarriko zenuten, baina atzera goaz. Inprobisazioarekin lotuta, duela hilabete bateko batzordean, Patxi Amantegik esaten zigun 120 milatik gora aurretuko zela; hurrengo batzordean, bi astetara, zifra honekin etorri zitzaigun, 50 mila. Azken batzordean, aurreko astean, eguberrietan inplantatuko zela eta, orain, otsailera atzeratzen da. Eta horren berri komunikabideen bidez jakin dugu. Berziklatzearen inguruko aurreikuspenak ez dituzue eta hau onartzen duzuen ustearen, edo on ustearen izenean, jartzen dituzue. Beraz, inprobisazioa bat bestearen atzetik dator. Hurrengo ez dakigu zer izango den. Gai honek duen garrantzia kontutan izanda, ezin da ahaztu Udalak duen faktura garestiena dela; hemengo mezuaren aparte, ezin da horrela jolastu zenbakiekin, ezin da esan gaur 120 mila euro aurretuko dira eta hurrengo batzordean ezetz, konfunditu egin naiz; ez du erakusten seguritate handia. Gainera, herritarrak jakin behar du, sistemarengatik guk pagatzen ditugun fakturak, Tolosako udalak mankomunitateari pagatzen dizkion fakturak, bi atal dituela; bilketa eta tratamendua. Hemen bilketaz ari gara, eta 50 mila euro gutxiago kostatuko omen da, baina ez dira beste datuak ematen. Sistema mekanizatu egingo denez, 2 langile kalera botako dituzue, 50 milaren truke. Kostuak ere handituko direla ez da esaten, kamioi berri bat beharko delako karga lateralez biltzeko. Ezta, errefusa gehiago sortzean, berziklatze tasak eroriko direla. Errefusa guzti hori zabortegira botatzearen trukean zenbat gehiago ordaindu beharko dugu?. Tona bakoitzeko 144 euro ordaintzen dira. Ondorioz, errefusa handitzen denean, kostea handitu egiten da. Bestalde, berziklatze tasa jaisten denez, plastiko eta papera guzti horiek gutxiago bilduko direnez, diru gutxiago jasoko da horren salmentarekin. Ondorioz, 50 mila aurretik dira 2 langile botata bilketan baina tratamenduz ez da hitz egiten. Badakigulako hor garestituko dela asko. Gaur %63 berziklatzen duen sistema

batean gaude eta zuek planteatzen duzuen, martxan dagoena hainbat herritan, %40ra ez da iristen; 22 puntuko alde dago, tona mordo direnak, zabortegian bukatuko dute eta ordaindu beharko dugu botatzeagatik. Ikuspegi ekonomiko hori ikuspegi orokor batetik aztertu beharko litzateke, tratamendua ere barneratu, guri dagokiguna bien ordainketa delako. Beraz, azkeneko faktura handitu egingo da, langileak kalera botako dituzue eta zabortegira hondakin gehiago bidaliko da; "chapeau"!, sistema perfektua!. Eta, aldiz, Bergaran ezartzera dihoazten sistema gaur egun hemengo sistemaren antzekoa da, edukiontzi handiagorekin baina sarbide kontrolatuekin. Bergaran ere hauteskundeetan EAJ eta PSEk ere izango zuten programan, baina gu ere, oraindik atzerago goaz, duela 15 urte hartzen zen erabakietara goaz. Hori ere, egunen batean argitu beharko duzue. Bergaran EAJrentzat balio duenak hemen zergatik ez duen balio?. Batzordeetan esana dut eskua luzatzen dugula adostasun batera iristeko eta badakizue zein den gure proposamena: adostu dezagun berziklatze tasa eta, hain seguru zaudetenez berziklatze tasak sistema honekin berdindu edo hobetu egingo direla, adostu dezagun berziklatze tasak eroriez gero zer neurri zuzentzaileak hartuko ditugun. Neurri zuzentzaile horiek adosten baditugu, adostu ditzagun, ez soilik gauden 17 zinegotziok. Baita interesa izan dezaketen herri eragileekin ere. Sortu dezagun gune bat. Ados jar gaitzen berziklatze tasa horiek mantendu ahal izateko, eta jaisten diren neurrian neurri zuzentzaileak hartzeko mekanismoak. Azken finean, gakoa ondo egitean datza eta argi daukagu sistema honek erakutsiko duela gauzak ez direla ondo egingo, ahalbideratzen duelako atea ireki eta nahi duzuen botatzera. Beraz, gure eskua prest adostasunerako. Bestela, gure susmoa egi bilakatuko da. Gure susmoa berziklatze tasak erortzea nahi izatea da, horren ondorioz errauskailu bat justifikatzeko. Eta hori susmoa dena egia bilakatzen dihoa, gaur irakurri ahal izan dugunagatik. Ondo berziklatzean erraskailuak gero eta zentsu gutxiago du, baina bestela sugar handi horrek dena irentsiko du. Beraz, etorkizun hobe baten alde gaudelako, guk sistema honen kontra bozkatuko dugu".

-
- ... Alkatea : "Gauza asko esan dituzu eta ea erantzuteko gai naizen!. Helburuan ez dut uste hain desberdinak garenik hemen gauden 17 zinegotziok. Denok amesten dugu etorkizun garbiago batekin, jasangarri batekin. Ez gara ados jartzen nolakotasunean. Gu gehiago gara aurreratzen joatea era progresibo batean. Lehen, organikoaren edukiontziak jarri aurretik egindako aurreko lan guztia, oso gaintik aipatu duten lan hori, horrek bazituen bere portzentaiak eta bere tasak eta teknikariak oso ondo baloratu zuten. Ez dut uste lan txarra egin denik, garai bakoitzak bere erabakiak eman ditu eta baita bere emaitzak ere. Halako batean, halako salto handi bat eman nahi izan da eta nola eman den hori ez dugu ondo ikusi. Emaitza begi bistakoa da; kaleak inoiz ez dira hain zikinak egon. Neurriak hartzea derrigorrezkoa da eta lehenengo neurria izango da edukiontzietatik kanpo dauden poltsak barrura sartzea. Hori egiteko gaur proposatzen ditugun neurriak hartzea iruditzen zaigu egokiena. Nolakotasun horretan zure diskurtsoan aipatu duzu, gizartea ez dela nahiko heldu askatasun osoz ondo egiteko. Ni esaldi horrekin ez nago bat ere ados. Uste dugu planteamendu hori egiteko garaian, neurriak ere, sentsibilizazio kanpainaren bidez, hartu behar direla. Gure erudia da ardura partekatua izatea, administrazioa eta herritarren artean. Eta zein den bakoitzaren egin beharra? Askotan egiten ditugun diskurtso potoloak eta ahaztu egiten dugu bakoitzak zer egin behar duen. Herritarrok sailkatu egin behar dugu etxean, Udalak antolatu behar du bilketa bat egokia daukan herrirako, eroso, ahalik eta erraztasun gehienak emanaz herritarrak ere sailkapen hori egokien egin dezan. Eta bilketa hori antolatzeaz gain, txukun mantentzeaz arduratu behar du Udalak. Oso garbi edukita bilketa Mankomunitateak egiten duela eta garbi mantentzearen hori mankomunitateak egiten duela, baita oraindik ere. Udaletxearen ardura hori egiten den edo ez jarraitzea da eta ez bada horrela izaten, zailtasunak daudelako, Mankomunitateari erreklamatzeko. Jarraipena egin behar da eta hori aurreko 4 urtetan ez da egin, ez da jarraipenik egin; orduan esatea gaurko egoera gure ardura dela, uste dut zuen arduraren erantzukizun hori aldameneko bizkarrera botatzea ez dela zilegi, oso begi bistakoa da gainera. Beraz, esan dituzun beste

aipamen batzuk, bilketa tratamenduari dagokionez, egia da. Bi zatitan dago tasa banatuta, hori ere zuen erabakia izan zen bere garaian. Lehen Mankomunitatean biztanlegoaren arabera egiten zen ekarpen hori; horrek suposatzen zion Tolosari gehikuntza izugarri bat, eta gero zuek martxan jarri zenuten ereduak beherapen bat eta gelditu gara 2013ko muga berdinean, ez aurrera, ez atzera. Diskurtsoak politikak dira baina errealitateak erakusten digu ez dugula hainbeste aurreratu. Guk ez ditugu 2 langile kalera botatzen, guk sistema aldatu egin dugu, baina plan horretan jarriz gero, Andoainek organikoa ez du jasotzen, Andoainek jasoko balu seguru aski 2 langile baino gehiago beharko lirateke. Beraz, guk ez dugu botatzen langilerik, Andoaingo herriak organikoa jasotzen hasiko balitz -berandu dabil- ez litzateke horrelako arazorik egongo. Bestalde, karga lateraleko kamioia beharko da bilketarako, aurreko legealdian ere karga atzerakoa erosi zen bezala. Bergaran zer egin duen ere aipatzen duzu, baina Villabonan zer egin du Bilduk?, zergatik hemen Bilduk ez du jarri Villabonak jarri duen sistema?. Herri bakoitzak jartzen duelako bere herriko sistema; beraz, konparaketak ez dute inongo zentzurik.”

... Jose Ignacio Asensio (PSE-EE): *“Puntualizazio batzuk egin nahi nituzke. Erabat ados nago behar beharrezkoa dela berziklatzea, baina betiko gauza da, nahasketa ugari egiten dituzue. Saillkapena eta berziklatzea konparatu edo berdindu, baina zer egin duzue azkeneko 4 urteetan?. Bilketa sistemak aldatu, baina tratamendua hobetzeko zer egin duzue? Ezer ez, aurreikusita zeuden azpiegiturak gelditu. Zer egiten da Gipuzkoan bio-hondakinekin? zer egiten da? Ba al dakizue nora bidaltzen ditugun? Zer kostea daukan horrek? CO2 aipatu duzu, ¿Qué coste tiene de CO2: al enviar 2 camiones diarios a más 150 kms? Esa es la preocupación medio-ambiental que habeis tenido vosotros. Azpiegiturak gelditu, eta gainera, zer kosteekin?, zer koste izan du horrek? 45 milioi baino gehiago, eta orain alternatiba zein izan da?; ezer ez. Zabortegiak mantentzea, ahal baldin bazen, eta, bestela, kanpora bidali zaborra. Hori izan da zuen alternatiba. Gauza da hitzak erabiltzea eta gero zer egin duzuen ikustea. Ikus dezagun denok zer egin duzuen. Gainera, esaten zenuen European zer erabaki zen eta ekonomia zirkularra aipatu duzu. Nahi nuke irakurri gauzatxo bat: hau da Europako parlamentuaren uztailaren 9an hartutako ebazpen bat eta abenduaren 2an hartutako beste ebazpena. Laburbilduz: Resolución del Parlamento Europeo, de 9 de julio de 2015, y borrador del 2 diciembre, economía circular:*

- Incremento de tasas reciclado año 2030, objetivo 65-70%. Gu horrekin ados, eta hori bultzatu behar dugu.

Incineración de los residuos no reciclables y no biodegradables. Horrekin ere ados erabat.

- Reducción obligatoria y progresiva del vertido de residuos en 3 etapas, 2020, 2025 y 2030.

Prohibición total del depósito en Vertederos

Beraz, gauzak ondo egin behar dira eta horiek dira guk emango ditugun pausoak, eta, noski, prebentzio, berrerabiltzea eta berziklatzea ondo egin behar da, eta gelditzen denarekin ere bai. Horrekin ere, erabaki bat hartu behar da. Baina azkeneko erabakia zabortegiak dira : “no hay más contaminante que un vertedero, vuestro modelo.”

... Ibai Iriarte San Vicente (EHBILDU): *“Zabortegia aipatzen duzu; zer egin behar duzue errauskailuaren errautsekin, beti geratzen den “resto” horrekin? Badakizu, gainera, askoz kutsakorragoak direla, erre den guzti horren hondakina delako; askoz kutsakorragoak. Beraz, zabortegiak ere zuek ez dituzue itxiko. Azpiegiturak gelditu ditugula esaten duzu: Batzar Nagusietan ez zenuten ezer egin; aurreko Gobernua Gipuzkoako Diputazioan gutxiengoa zen eta azpiegitura alternatibo guztiak blokeatu zenituzten, hemen gaur gehiengoa duzuen alderdiek. Denak gelditu zenituzten, alternatiba guztiak; hau zuentzako ez zelako ona, argi zenutelako zer nahi zenuten, errauskailua, eraikuntza bultzatu eta sustatu. Horixe izan zen zuen helburua, lehen eta horixe izango da zuen helburua orain. Eta horretarako sinatu zenituzten 45 milioi horien atzean zeuden kreditu tranpa guztiak gobernu aldaketa gauzatzear zegoela. Beraz, gauza askotaz hitz egin dezakegu, baina egiak osoak eman beharko ditugu. Esplikatu beharko diguzu, nondik pagatuko dugun errauskailua, baina*

hori beste batean ekarriko dugu, gu guztion zergetatik.”

Jarraian, alkateari zuzenduta: *“Olatz, zure lehenengo esaldia harrigarria iruditu zait: gu progresiboak gara. Orduan, gu progresiboak garen horretan oinarritzen duzue, onartzen duzue, berziklatze tasak erori egingo direla. Progresiboak nola garen gutxinaka-gutxinaka egin behar ditugu aldaketak, eta gutxinaka horretan, nola oso aurrerakoiak izan garen, oso aurrera joan garen, eskuina beti eskuin, pausoz-pauso, mantsoago. Beste esaldia: gizartea heldua da. Bai, horrela da, baina gizartearen %85 gehiengoak ondo egitea badu eta % 15 horrek gaizki, ondo egiten duenarena zapuztu egiten du. Gero, ardura: noski, partekatua dela, baina herritarrak bereizi egin behar dute eta Udalak bildu. Nik uste, ardura partekatu horretan, guk daukaguna, mahai honetan Udal deitzen den horrek, eta nola ez, zuek, Udal Gobernu bezala daukazuen erantzukizuna, gu guztiok daukaguna handiagoa da, ez da bakarrik bildu, ez da bakarrik jasotzea, eta gainera Mankomunitateari faktura ordaintzea. Askoz gehiago da. Ezin dugu guk, beste politiketan egiten den bezala, normalizazioaren ardura herritarraren esku utzi; instituzioak badu ardura bat eta Instituzioak bultzatu behar du ardura hori eta bera da gaitasuna duena, eta ez bakarrik kanpainen bidez, gauzak ondo egiten direla bermatzeko. Eta kasu honetan herritarrak ez dauka bakarrik ardura, biltzen eta sailkatzen, instituzioak jarri behar dituen bitarteko horiek horretara bultzatu behar dute eta ez edukiontzi ireki bat jartzera. Zentzu horretan, guk, instituzio gisa, edo, zuek, momentu honetan zuen buruei ardura kendu nahi diozue. Eta 2 langile kalera bidaltzearen ardura ez esan Andoainek ez duelako egiten dela; Andoainek egiten badu beste x langile kopuru bat kontratatuko dira eta. Hala ere, nik nahiago dut sistema bat, non koste berdinen aurrean, edo merkeago izango den sistemaren aurrean, lan esku edo pertsona gehiago behar den sistema mekanizatu eta garestiagoa baino. Gauzak dauden bezala jendea kalea bidaltzea larria da. Eta ez justifikatu Andoainek egiten duela edo ez. Tolosan gauzatu edo ez, eta Andoainera aldaketa justifikatu balitz, langile gehiengoaren kontratazioz arituko ginatke, eta ari gara hitz egiten Tolosak 2 langile kenduko dituela. Eta herrien arteko konparaketari buruz, guk oinarri bat jarri genion gure buruei, herri bakoitzak %60 sailkatzea. Agian, Bergarak beteko du, baina susmoa daukat, beste herrietan dagoen sistema ikusita, ez garela iritsiko kopuru horietara. Horregatik diot, eta berriro luzatzen dut eskua; jarri ditzagun bitartekoak gaur egungo berziklatze tasak mantentzeko eta hori betetzeko eta, jaisten diren neurrian, neurri zuzentzaileak adostu ditzagun, ez dela bilakatu hau alderdien arteko talka, etorkizun hobea nahi badugu egin dezagun lana horren alde bitartekoak jarri. Proposamenak ez du justifikatzen inondik inora berziklatze tasen inguruko hausnarketa sakon bat egin denik. Zehaztu ditzagun zeintzuk izango diren neurri zuzentzaileak. Jarri ditzagun akordioan neurri zuzentzaileak, eta egin dezagun hau herriko eragilearekin batera. Eta neurri zuzentzailekiko %koak erortzen badira, jarri ditzagun martxan gaur egun berziklatze tasak betetzekoak”.*

... Olatz Peon Ormazabal, alkatea: *“Europak zehazten duen 2030erako %65ko tasa betetzeko ez daukagu eragozpenik. Dagoen tasari eusteko, gai izango gara, horretarako sistema lagundu eta jarraituko baldin bada ere. Zuzentze arauak jarri behar badira, jarri eta adosteko ez daukagu inongo eragozpenik. Lehenengo ikusi errealitatean zer gertatzen den, edukiontziak irekitzen ditugunean. Akordioa hainbeste aipatzen duzun horretan gogora ekarri nahi nuke, orain dela 2 urte gai hau eztabaidatu genuenean plenoan, Ibai zu alkate izanik, aipatzen zenuen hitzez hitz: “akordioetara iristea badago, baina ulertzen dut akordioetara iristeko aukerarik ez badago, Udalak bere gehiengo ahalbideratu behar duela”.* Zure hitzak dira, segun eta ze lekuetan gauden aldatu egiten dugu. Goazen egoera lasaitzea, helburu bera daukagu, seguru nago adostasunetara iritsiko garela. Ikus dezagun hartuko dugun neurri horien ondoren errealitatea. Etorkizunean joango gara hitz egiten”.

... Ibai Iriarte San vicente (EHBILDU): *“Hiru urte saiatu gara akordioak biltzen eta uste dut hemen garen askok eta gai honekiko jarraipena egin dutenek, jakin eta ikusi dutela zer egin eta zer egin ez den akordio hori lortzeko. Horretarako asmoa behar da besteen aldetik, ez*

bestetik. Ez dezagun konparatu akordioa lortzeko batzuk egin genuen lanketa eta beste batzuk egin duzuen; bi batzordeetara mugatu dena”.

Jarraian, alkateak bertaratu diren talde eta herritarrei eman die hitza. Partehartzeak espedientean jasota daude, DVDan.

Parte hartzeak amaituta, Udalbatzak jarrian aipatzen den erabakia hartu du: “Hauteskunde kanpainan agindutakoari jarraituz, Udal Gobernuak hondakinak biltzeko sistemaren aldaketak proposatzen ditu. Hauteskunde programan Udal Gobernuak egin zituen proposamenak bitan laburtzen dira:

- Atez-ateko sistema kentzea.
- Bizilagunentzat zaborra jasotzeko sistema eroso bat ezartzea.

Gainera, sistemak eraginkorra, jasangarria eta ekonomikoki bideragarria izan beharko luke eta egungo birziklatze maila mantentzeko adinekoa.

Udalbatzari proposatzen zaion hondakinak biltzeko sistema berria, hauteskundeetan emandako agindua betetzeaz gain, sistema eraginkorra, jasangarria eta ekonomikoki bideragarria da, eta, gainera, egungo birziklatze maila mantendu eta hobetuko du.

Txosten teknikoan arabera, sistemaren ezaugarri teknikoak eta ondorio ekonomikoak honako hauek dira:

- Organikoa, errefusa eta sanitarioen bilketa egiteko edukiera txikiko edukiontzia erabili beharrean, albotik kargatzen diren edukiera handiagoko edukiontzia erabiliko dira. Edukiontzi hauek 2.200 litroko edukiera izango dute.

- Ondorioz, nabarmen jaitsiko da bildu beharreko edukiontzien kopurua. Hasiera batean 84 bilketa-gunetik 61-65 gunetara jaitsiko dira. Txostenean azaltzen dira, plano batean, bilketa-guneen kokapenak.

- Gaikako biletaren esparrua handitzea. Gaikako materiala jasotzeko ahalmena eta kapacitatea handituko da, izan ere, irlak edo puntu osatuak jarriko dira, gai edo frakzio guztiak jasotzeko aukera emango dutenak.

- Hondakinak uzteko maiztasuna handitzea, ez bakarrik organikoa eta errefusarena. Horrela, udalerriko hainbat tokitan paperaren eta ontzien gaikako biletaren maiztasuna handituko da.

- Atez ateko sistema kentzea, denda eta ostalaritza establezimenduetatik hondakinak jasotzeko. Tolosa eskualdeko merkataritza zentroa da, eta zentzu horretan, kaleak garbiak eta apainduak izatea ezinbestekoa da. Horregatik, proposatzen da merkataritzako eta ostalaritzako lokalek gainerako herritarrek erabiltzen dituzten edukiontzietan uztea zaborra. Kartoi komertziala jasotzeko eta paper orokorretik bereizteko, gunek jakin batzuk egokituko dira

- Arrandegietan sortutako hondakin organikoa atez ateko sistemaren bitartez jasoko da.

- Kale garbiketa erraztuko da. Sistema berriarekin kalean pilatzen diren zabor poltsen kopurua murriztuko da, jasotze sistema erraztu egiten delako.

Aurrez aipatzen den modura, sistema berriak ekonomikoki bideragarria izan behar du. Mankomunitateko teknikariak egindako txostenean azaltzen da erabiliko diren prezio unitarioak eta Tolosako hondakinen bilketa sistema berriaren kostu ekonomikoaren kalkulua, eta, ondorioz, Ute Tolosaldearen eta Tolosadeko Mankomunitatearen arteko kontratuaren aldaketa proposamena.

Laburbilduz, txostenak honako atalak ditu:

- Erabiliko diren prezio unitarioak.
- Sistema berriaren kostu ekonomikoaren kalkulua:
 - Egungo sistemaren aldaketen ondorioz murrizten diren gastuen balorazio ekonomikoa (482.035,18 euro)
 - Eta sistema berriak dakartzan gastu berriak (428.113,70 euro)
 - Guztira 53.921,48 euro merkeago.
- Hondakin bakoitzaren bilketa ezaugarriak (Bilketa lekua, maiztasuna, ordutegia eta deskarga puntua).
- Tolosako eta Irurako hondakinen bilketa bateratuak edukiko lukeen kostua eta Irurak hartu beharko lukeen gastu berria.
- Laburpen bat egiten da kontratu aldaketak eragindako kostuei buruz:

	TOLOSA	TOLOSA + IRURA
ZABOR BILKETA ZERBITZU OSOAREN EGUNGO PREZIOA (BEZa BARNE)	3.080.906 €	3.080.906 €
TOLOSAN KENDUKO DIREN ZERBITZUAK	-482.035 €	-482.035 €
IRURAN KENDUKO DIREN ZERBITZUAK		-31.946 €
TOLOSAN JARRIKO DIREN ZERBITZUAK	428.114	397.935
IRURAN JARRIKO DIREN ZERBITZUAK		65.744
GUZTIRA (BEZa BARNE)	3.026.985 €	3.030.604 €
KONTRATUAREN JAITSIERA EKONOMIKOA (BEZa BARNE)	-53.921 €	-50.302 €

Tolosako zabor bilketa zerbitzuaren aldaketa kontuan izanik, UTE TOLOSALDEArekin izenpetutako kontratuak **53.921,48 €-ko, BEZa barne**, jaitsiera ekonomikoa izan beharko luke, Mankomunitateko teknikariaren txostenean ondorioztatzen den moduan.

Irurarekin bilketa bateratua eginez gero, kontratuaren jaitsiera ekonomikoak 50.302,00 eurokoa izan beharko luke.

Gauzak horrela, Ingurumen, Auzo, Obra eta Zerbitzuen batzordeak 2015eko abenduaren 2an jaulkitako diktamenaren arabera, Udalbatzak, EAJ/PNV(9) eta PSE-EEren (1) aldeko botoekin eta EHBILDU(7) alderdiko aurkako botoekin, gehiengoz,

ERABAKI DU

Lehena.- Hondakinak biltzeko gaur egungo sistema aldatzea erabaki honen adierazpen zatian eta aipatutako txosten teknikoan agertzen den moduan.

Bigarrena.- Tolosaldeko Mankomunitateari eskatzea hondakin sisteman aipatutako aldaketak egitea, eta, ondorioz, kontzesiodunaren kontratuari behar diren aldaketak egitea.

Hirugarrena.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Obra eta Zerbitzuen Departamentuari eta Tolosaldeko Mankomunitateari.”

Besterik gabe, gaueko 21:15etan bilera bukatutzat eman da, eta guztia, nik, Idazkaria naizen aldetik, ziurtatzen dut.

ALKATEA

Sin más asuntos que tratar, siendo las 21:15 horas de la noche, se da por finalizada la sesión, de todo lo cual, yo, el Secretario, certifico.

IDAZKARIA